BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4777

EBAZPENA, 2015eko urriaren 28koa, Administrazio eta Lurralde Plangintzako sailburuordearena, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduan aurrez ikusitako laguntzen emakida ebatzi eta argitara ematen duena. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen dira, paisaiarako ekintza-planak presta ditzaten.

2015eko uztailaren 22an, 137. zenbakiko EHAAn argitaratu zen 2015eko uztailaren 22ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia egiten baita eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira, paisaiarako ekintza-planak presta ditzaten.

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 21ean amaitu zen, aipatutako aginduaren 4.1. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela izanik, 30 eskaera egin dira, eta zerrenda honetan jasota daude:

	Udala/Kontzejua	Proiektuaren titulua
1	Iruña Oka	Zadorra ibaiaren inguruko PEP, Iruña Okatik pasatzean
2	Vitoria-Gasteiz	Las Neveras muinoaren inguruko PEP
3	Alegria-Dulantzi	Alegria-Dulantziko PEP
4	Burgelu	Burgeluko udalerriko PEP
5	Agurain	Salvatierra/Aguraingo udalerriko PEP
6	Atauri	Atauriko asfalto-meatzeetako PEP
7	Gordexola	Herrerías-Ibalzibarko errege-galtzadako PEP Zubiete-Oxirando
8	Zalla	Cadaguako errege-galtzadako PEP, La Mellatik Mimetizera
9	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Gerente putzuko PEP
10	Gatika	Butroi ibaiaren konektibitatea sustatzeko PEP
11	Forua	Foruko landa-ingurunea kudeatzeko PEP
12	Gernika-Lumo	Oka ibaiaren inguruko PEP
13	Durango	Durangoko ibaien ertzetako PEP
14	Getxo	Getxoko itsas fatxadako PEP, Arrigunagatik Punta Begoñaraino

	Udala/Kontzejua	Proiektuaren titulua
15	Ea	Eako PEP
16	Zaratamo	Arkotxako industria-inguruneko PEP
17	Otxandio	Otxandioko lurraldeko PEP
18	Markina-Xemein	Markina-Xemeingo udalerriko PEP
19	Lekeitio	Lekeitioko PEP
20	Ortuella	«Ortuellako Leihoa» Ortuellako PEP
21	Astigarraga	Santiagomendi-Landarbasoko korridoreko PEP
22	Usurbil	Oria ibaiko PEP
23	Itsasondo	Malkorra-Izarre arbelaren PEP
24	Hernani	Urumea ibaiaren ibai-korridoreko PEP, Ereñotzu eta Epela mugarteetatik pasatzean
25	Tolosa	Oria eta Araxes ibaien hiri-ibaiertzetako PEP
26	Donostia	Lauhaizetako PEP
27	Elgoibar	Moru inguruko PEP
28	Ezkio-Itsaso	Alegia-Santa Luzia ibarreko PEP
29	Deba	Deba ibaiaren eta bere ibaiertzaren PEP, Sasiolatik eta Astigarribiatik estuarioraino
30	Legazpi	Urtatza eta Barrendiola urtegien arteko zirkuitua balorizatzeko PEP

Diru-laguntzen eskaeren zerrenda horretatik, Agurainek eta Legazpik eginikoak epez kanpo sartu dira; izan ere, bi eskaera horiek irailaren 24an erregistratu dira.

Diru-laguntza hauek arautzen dituen uztailaren 22ko Agindu horretako 7. artikuluan xedatutakoarekin bat, urriaren 27an horretarako balorazio-epaimahaia eratu zen, hartutako eskaerak aztertu eta egiaztatzeko xedeaz, kontuan hartuta artikulu horretako 2. atalean xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

Arestian aipatutako 2015eko uztailaren 22ko Agindu horretako 15. artikuluak xedatzen du diru-laguntzak emateko kopurua guztira 280.000 euro dela, 13. artikuluak zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza planak idazteko ordainsarien % 90, plan bakoitzerako 30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango direla diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, ondorio gisa, 2015eko urriaren 27an, 7.3. artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta I. eranskinean adierazitako puntuazioa, barnean hartuta zein udal edo kontzeju den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den. Halaber, aipatutako proposamenean zerrendatzen dira ukatzeko diren eskaerak, zergatik ukatzen diren adierazita.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta horretarako deialdia egiten baita, paisaiarako ekintza planak presta ditzaten; eta horretarako eratutako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Paisaiarako ekintza planak idazteko diru-laguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta kontzejuei, adierazitako zenbatekoan:

	Udala/kontzejua	Proiektuaren titulua	Proposatutako zenbatekoa
1	Usurbil	Oria ibaiko PEP	26.100,00
2	Donostia	Lauhaizetako PEP	13.388,40
3	Astigarraga	Santiagomendi-Landarbasoko korridoreko PEP	25.920,00
4	Iruña-oka	Zadorra ibaiaren inguruko PEP, Iruña Okatik pasatzean	26.100,00
5	Gernika-lumo	Oka ibaiaren inguruko PEP	29.700,00
6	Zaratamo	Arkotxa auzoko industria-inguruneko PEP	16.065,00
7	Lekeitio	Udalerriko PEP	19.800,00
8	Ezkio-itsaso	Alegia-Santa Luzia ibarreko PEP	26.055,00
9	Getxo	Getxoko itsas fatxadako PEP, Arrigunagatik Punta Begoñaraino	21.600,00
10	Zalla	Cadaguako errege-galtzadako PEP La Mellatik Mimetizera	23.400,00
11	Atauri	Atauriko asfalto-meatzeetako PEP	16.155,00
12	Ortuella	Ortuellako Leihoa PEP	27.000,00

Bigarrena.– Paisaiarako ekintza planak egiteko diru-laguntzak ukatzea ondoren zerrendatutako udalei, eta kasuan kasu ukatzeko arrazoiak:

	Udala	Ukatzeko arrazoia
1	Durango	Aurrekontuko kreditua amaitzea
2	Gordexola	Aurrekontuko kreditua amaitzea
3	Otxandio	Aurrekontuko kreditua amaitzea
4	Ea	Aurrekontuko kreditua amaitzea
5	Deba	Aurrekontuko kreditua amaitzea
6	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Aurrekontuko kreditua amaitzea
7	Forua	Aurrekontuko kreditua amaitzea
8	Tolosa	Aurrekontuko kreditua amaitzea
9	Itsasondo	Aurrekontuko kreditua amaitzea
10	Hernani	Aurrekontuko kreditua amaitzea
11	Vitoria-gasteiz	Aurrekontuko kreditua amaitzea
12	Markina-xemein	Aurrekontuko kreditua amaitzea
13	Gatika	Aurrekontuko kreditua amaitzea
14	Burgelu	Aurrekontuko kreditua amaitzea
15	Elgoibar	Aurrekontuko kreditua amaitzea
16	Alegría-dulantzi	Aurrekontuko kreditua amaitzea
17	Agurain	Epez kanpo aurkeztea
18	Legazpi	Epez kanpo aurkeztea

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko ondorioetarako.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 28a.

Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MIREN IZASKUN IRIARTE IRURETA.